

**MUGAZ GAINDIKO RÉSIDENCE ARTISTIQUE  
ERRESIDENTZIA ARTISTIKOA TRANSFRONTALIÈRE**

**DEIALDIA IREKITA APPEL OUVERT**  
**Apirilak 5 arte jusqu'au 5 avril**

[www.patrim.net](http://www.patrim.net)



[residencias@patrim.net](mailto:residencias@patrim.net)

## Proiektuen deialdia Mugaz gaindiko erresidentzia artistikoa PATRIM+

## 1. AURKEZPENA

PATRIM museo, ekomuseo eta ondarearen interpretazio zentroen mugaz gaindiko sare bat da. Sarearen helburua da **Pirinioetako natura- eta kultura-ondarea nabarmentzea da**, mugaz bi aldeetara, garapen jasagarriko ikuspegi bateratuak baliatuz. Sare honetan, Ariège, Garona Garaia, Pirinio Garaiak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Aragoi eta Kataluniak parte hartzen dute.

Pirinioak inoiz ez dira izan irmo itxitako muga; izan ere, denbora luzez, kultura-, gizarte- eta ekonomia-arloko elkartrukeen lurralde handi bat izan dira. Bertako biztanleek topaketak, elkarrizketak, mendi-inguruneak, merkataritza-guneak eta ospakizun bateratuak (erronesaldiak, festak...) partekatu izan dituzte berriki arte. Joan den mendetik, zirkulazio-bitartekoen bilakaeraren ondorioz, besteak beste, egoera hori eraldatu egin da. Dena den, hala mugaz alde batera nola bestera, askotariko kultura-ekipamenduak existitzen dira gai beraren gainean: beren ikerketak eta esperientzia partekatu egin nahi dituzte. PATRIM sarearen helburua da Pirinioak kultura-multzo gisa aztertu eta balioestea da: mendikatea bat, bi isurialde, ondare komun bat. 2008tik aurrera, askotariko ekintzak jarri dira abian horko biztanleei zein bisitariari Pirinioen ondare eta bizitasun sortzaileari buruzko hurbilpen zehatz bat emateko.

2018ko otsailean, sareak Interreg – EGEF (FEDER) Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programaren oniritzia jaso zuen PATRIM+ proiekturako. Proiektuaren 4. ekintzaren helburua da berrikuntza eta baliarazpen jasagarriko parte-hartzaile estrategia komunaren estrategiak definitu eta ezartzea, interes handia agertuz museoetako/interpretazio-zentroetako bisitarien sarbidea hobetzeko, inklusioa eta gizarte-elkarrekintza sustatzeko (desgaitasunei buruzko lana, kulturatik urruneko hartzaileen artean, arreta berezia jarriz hartzaile gazteetan).

Testuinguru horretan, PATRIM sareko partaide diren hiru zentroek erabaki dute lurraldeko artisten egonaldi baterako deialdia egitea, PATRIM+ egonaldiako, era bateratuan eta mugaz gaindiko ikuspegi batez:

- Le Château de Seix –Couseransko ondarearen interpretazio-zentroa (Ariège, Frantzia)
- Espacio Pirineos – Grausko Pirinioetako Sorkuntza eta Kultura Zentroa (Huesca, Espainia)
- Ezkioko Igartubeiti Museoa (Gipuzkoa, Espainia).

Sarearen helburuetako bat da arte- eta ondare-arloen arteko bidegurutze-espazioak sustatzea, kultura garaikidean kokatutako diskurtso berriak sortuz eta **paisaia eraldatzearen**, hiri-landa binomioaren edo ingurumen- eta ekonomia-krisiaren inguruko egungo eztabaidetan oinarrituz.

Pirinioetako ondarearen ezagutza eta kontserbazioa inspirazio-iturri ere izan daitezke sorkuntza garaikiderako, era horretan historiaren haria ehuntzen jarraitu ahal izateko.

PATRIM+ artista-egonaldiak publikoak konektatzea eta publiko berrien bila joatea bilatzen du. Proiektu honen hartzailea gazteria eta kultura- zein arte-eskaintzatik urrun dagoen jendea da. Egonaldiaren asmoa da inplikaturako hiru zentroen lurraldeko biztanleen, artisten, artelan baten eta sorkuntza-prozesuaren arteko topaketa erraztea da, presentzia artistiko sendo batean oinarrituta.

**Château de Seix** XVI. mendeko gaztelu bat da, eta bertan dago Couseransko Haranetako ondarearen interpretazio-zentroa; Pôle Culture de la Communauté de Communes Couserans-Pyrénések kudeaturiko kultura-ekipamenduetako bat da; haren programazioa lurraldeko beste kultura-eragile batzuekin lankidetzan estuan garatzen da, ADECCek, Couseransko kultura-ekonomiaren garapenerako agentziak, sustatutako kultura-denboraldi batean kokaturik. Château de Seixek **Le Bus – kultura-espazio mugikorrarekin** lankidetzan ekartzen du Couseransko PATRIM + egonaldi-proiektu hau, helburutzat harturik artistek eta biztanleek ikusizko arteen arloan, argazkilaritzan zehazki, errazago elkar topatzea (dela egonaldien, sorkuntza-tailerren, bitartekaritzen bitartez, dela heziketaren bitartez).

**Espacio Pirineos** Grausko eliza jesuita zaharrea dago, XVIII. mende amaierako artelan barrokoan, eta egun Pirinioetako interpretazio-zentro bat eta kultura- eta arte-sorkuntzaren gune eragile bat da, Grausko Udalarari lotua.

**Igartubeiti Museoa** XVI. mendeko baserri bat da, kultura-, historia-, antropologia-, arkitektura- eta sinbolo-balioen multzo baten erdigune; horiek euskal ondarearen ezin besteko elementu egiten dute. Bestalde, baserriaren beraren zabalkundearen laguntzeko interpretazio-zentro bat du. Bi elementuok, baserria eta interpretazio-zentroa, baratze eta ingurunearekin batera, Igartubeiti Baserri Museoa eratzen dute.

Hiru zentro horiek, egonaldi-proiektuetarako deialdi honen bitartez, proiektu bana hautatuko dute egonaldiak iraun bitartean zentroetako bakoitzean garatzeko; hiru proiektuen eta hiru lurraldeen artean, zubiak eraikiko dira edo, bestela, talde batek egindako proiektu bakarrean, taldeko kideak hiru zentroetan banatuko dira.

## 2. DIZIPLINAK

Aurkeztutako proiektuak **edozein** arte-diziplinatakoak izango dira, ikus-entzunezko eta transmedia lengoaiak, diseinua, teknologia berriak, dantza, antzerkia eta moda erabiltzea lehenetsiz, edo horien konbinazio bat. Gogoan izan behar da ondorengoa:

- Couseransen aurkezturiko proiektuak (**Seixko Gaztelua**) ikusizko arteei loturik egongo dira, bereziki **argazkilaritzari**.
- Espacio Pirineosi aurkezturiko proiektuek **NOCTE** Nazioarteko Jaialdiaren ospakizuna kontuan izan behar dute, eta aurtengoan **emakumea** da haren kontzeptua.

Aurkez daitezken proposamenak banakakoak edo lankidetzan izango dira.

### 3. GAIK ETA ERAGINA

- Gako nagusia da ondarearekin dugun harremanaz galdetzea, inguruneko historia ikusgaiarekin dugun harremanaz, eta egun guk uzten dugun markaz galdetzea; nolabait ere “etorkizuneko arkeologo” izaten jolastea izango litzateke.

Proiektu guztiak *site specific* izan behar dira, eta ingurunearekin, hura kokatzen den tokiko komunitatearekin, dialogo bat proposatu.

Grausko Espacio Pirineos zentroaren kasuan, egonaldia **NOCTE** Nazioarteko Jaialdiaren ospakizunari lotuko zaio, eta aurtengo kontzeptua **emakumea** da.

Proposatutako sorkariek eragina izan behar dute zentroen kanpoko espazio publikoan.

### 4. HELBURUAK

- Ondarea inspirazio-iturri izateko sustatu, narrazio eta kontaketa berriak hauspotuz, ondare- eta arte-arloaren arteko bidegurutzean oinarrituz.
- Lurraldeko kultura- eta arte-garapenean lagundu, landa-eremuan arte garaikidea bultzatuz.
- Herritarren sen kritikoa bultzatu.
- Arte- eta kultura-eskuragarritasun gaietan, desparekotasunak murrizten lagundu.
- Tokiko artista-ehundura hauspotu.
- Askotariko lurralde parte-hartzaileetako artisten mugikortasuna bultzatu.
- Sorkuntza, zabalkunde eta praktika artistikoaren arteko elkartrukeak sortu.

### 5. BITARTEKARITZA-PLANA

Gutxienez, ondorengoak bilduko ditu:

- Herriko edo/eta eskualdeko kultura-eragileei egindako lana aurkeztu.
- Artistak erabakitzen duen hartzaileentzako tailer bat (jardunaldi bat).
- Sorkuntza-prozesua herritarrei, oro har, aurkeztu.
- Artistak egonaldi honetan baloratuko diren beste proposamen batzuk egin ditzake.

Couseranserako, Association Autres Directions eta haren ekipamenduarekin, Le Bus – espace Culture Mobilerekin, lankidetzan aritu ahal izatea erraztuko zaio artistari.

### 6. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

- Proiektuaren deskribapena eta berezitasuna, mugaz gaindiko ikuspegia kontuan hartuz. 40 puntu gehienez.
- Proposamen artistiko garaikideak lurraldearekiko duen elkarrekintza, bitartekaritza eta sentsibilizazioa eta, bereziki, komunitatearekin harremanetan jarri eta inguruneko

eragileekin lankidetzan aritzeko beste modu batzuk planteatzen dituzten formatuen aldeko proposamenak. 30 puntu gehienez.

- Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileen esperientzia baloratuko da, bereziki diziplinarteko lana, ibilbidea eta baloratuko diren beste proiektuetako parte-hartzea. 10 puntu gehienez.
- Ekipamenduen ingurunerako egokitzapena (Château de Seix, Espacio Pirineos, Igartubeiti Museoa) 10 puntu gehienez.
- Genero-ikuspegia proiektuaren planteamenduan sartzea: estereotipo sexistarik gabeko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten gaiak, materialen sorrera eta/edo lan-ildoak. 5 puntu gehienez.
- Proposamenak, halaber, eragin neutroa edo positiboa izan behar du ingurumenaren planoan. 5 puntu gehienez.

## 7. IRAUPENA

Egonaldiek 4 aste iraungo dute gehienez, eta aldi batez edo bitan garatuko dira 2019ko ekainaren 1 eta irailaren 15 artean (Couseranserako, uztailaren 15 baino lehen, nahitaez).

Egonaldien amaieran, emaitzen aurkezpen publiko bat antolatuko da.

## 8. PERTSONA PARTE-HARTZAILEEN BETEKIZUNAK

Deialdi hau artista profesionali edo profesionalizatzeko-bidean direnei zuzentzen zaie.

## 9. EGONALDIEN EZAUGARRIAK ETA ZUZKIDURA EKONOMIKOA

PATRIM+ egonaldi-proiektua PATRIM+ EFA 251/16 proiektuaren baitan garatu da, Espainia-Frantzia-Andorra Lankidetzako Programa 2014-2020an kokatuta aurkeztu izan dena. Proiektu honetarako gastuak POCTEFAk hartuko ditu bere gain % 65ean, Europar Batasuneko EGEF (FEDER) Eskualde Garapeneko Europako Funtsen kredituei esker. Ariègeko departamendu-kontseiluak, halaber, Courseransko ekintzetan (Château de Seix) izandako gastuetarako % 15eko laguntza jarriko du.

- Sorkuntzarako laguntza:
  - 1.600 € artista bakarrarentzat, edo 2.500 € bi artistarentzat aldi osorako, Couseransko kasuan.
  - 1.600 € Espacio Pirineos eta Igartubeiti Museoa.
- Produkzioa: 1.300 € gehienez, behar bezala justifikatu ondoren ordaintzekoa.
- Alojamendua: horretarako azpiegitura duten zentroetako alojamendua jarriko da artistaren eskueran. 600 € jarriko dira gehienez, behar bezala justifikatu ondoren ordaintzekoak.
- Bidaia eta dietei aurre egiteko laguntza-zorrotza: 500 € gehienez, behar bezala justifikatu ondoren ordaintzekoak.

\*(diru kopuru horiek zerga-atxikipenari lotuta daude, herrialde bakoitzeko legediak ezartzen duenaren arabera)

## 10. HAUTAKETA-BATZORDEA

Balorazio-batzordea arte eta kulturako zein museologia-arloko profesionalek eta deialdi hau antolatu duten zentroetako ordezkariak osatuko dute.

## 11. ARTISTEN KONPROMISOAK

Tailerrak egitearen bidezko sentsibilizaziorako ekintza publikoak:

- Aukeraturiko hautagaiek sentsibilizazio publikoko, kultura- eta arte-heziketako ekintzak garatzea proposatu eta konpromisoa jarri behar dute egonaldian (2019ko ekainaren 15 eta irailaren 15 artean).
- Inplikaturako komunitate edo talde bakoitzarekin antolatutako bitartekaritza-ekintza horietan parte hartu.
- Artistek baimena emango dute egonaldi-amaierako erakusketa bat antolatuz jendaurrean beren lana ikusgai jartzeko, zentroak irekirik dauden egutegiaren barnean.

Komunikazioa:

- Arte-sorkuntzarako finantza-laguntzak hartzen dituzten artistek Patrim+ proiektua eta egonaldiaren zentroa aipatu behar dituzte, baita haren logotipoak erakutsi ere komunikazioko material guztietan (foiletoak, kartelak, gonbidapenak, Internet, etab.). Komunikazio guztiak frantsesa-gaztelania elebitan izango dira. Igartubeitiren kasuan, komunikazio guztiek euskaraz ere behar dute.

Hirugarren pribatuen zein publikoen aurrean, lanak egiteko beharrezko izan daitezkeen baimen guztiak artistak kudeatu behar ditu.

Artistak lan-kronograma errealista eta bideragarri bat aurreikusi behar du egonaldiak iraun bitartean eta proiektuko zentroko geroko erakusketarako, aipaturako baimenen erantzunak kontuan hartuz.

Egonaldiko artistek antolamenduaren barne-arauak errespetatu behar dituzte, zehazki zentro bakoitzak lagatuko gunea erabiltzeari buruz (ordutegiak, segurtasun-protokoloak, materialen erabilera, instalazio erabilgarriak, etab.).

Hautaturiko artistek laguntza onartzen dutela dioen agiri bat sinatu behar dute nahitaez; bertan laguntzaren baldintzak zehaztuko dira, baita egonaldi artistikoa osorik egiteko eta proiektu artistikoa bukatzeko artistaren konpromisoa ere.

Artistak nahitaez harpidetu behar du erantzukizun zibileko eta alokairuko aseguru bat egonaldiak irauten duen eperako. Egonaldi-hitzarmenean haren frogagiri bat erantsi behar da.



## 12. ZENTROEN KONPROMISOAK

- Proposatutako proiektu artistikoan oinarritutako bitartekaritza-plan bat diseinatu eta exekutatzeko aholkularitza eman eta akonpainamendua egin.
- Egonaldiaren, bitartekaritza-ekintzen eta emaitzazko proiektuaren jarraipen komunikatiboa egin eta haren berri zabaldu, dela sare sozialen bidez, dela inplikaturako erakundeek baliaturiko ohiko bitartekoen bidez.

## 13. BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA ETA ESKAERA-EPEA

•

Ondorengoak dira bidali beharreko elementuak:

- Asmo-gutun bat, proiektuari buruzko nondik norakoak adieraziz (3.000 karaktere gehienez) ABIZENA, IZENA
- Txosten artistiko bat eta CV bat ABIZENA, IZENA
- Motibazio-gutuna (1.000 karaktere gehienez) ABIZENA, IZENA

Dokumentazio guztia 2019ko apirilaren 5eko 14:00 baino lehen aurkeztu behar da posta elektronikoz bakarrik, ondorengo helbidera igorritz: [residencias@patrim.net](mailto:residencias@patrim.net)

Gaia zehaztu: PATRIM+ egonaldi-proposamena\_ABIZENA, IZENA

Balorazio Batzordearen azken erabakia **2019ko apirilaren 29an** emango da ezagutzera [www.patrim.net](http://www.patrim.net) webgunearen eta zentro bakoitzeko webguneen bitartez. Nork bere hautagaitza aurkezteko unean jarri duen helbide elektronikora ere jakinaraziko zaio onuradun bakoitzari.

Balorazio Batzordeak deialdia hutsik geratu dela adieraz dezake baldin eta ikusten badu hautagaitza batek ere ez dituela behar baldintzak betetzen.

## 14. ORDAINTZEKO ERA

Zuzkidura ekonomikoaren kopurua ondorengo eran ordainduko da:

- Deialdiko laguntza kopuruaren % 50 artistak laguntza onartzen duela dioen agiria sinatu ondoren.
- Deialdiko laguntza kopuruaren % 50 egonaldia amaitzean, egindako artelan edo proiektua jendaurrean aurkeztu ondoren.

Bidaiako gastuak, dietak eta ekoizpen-gastuak gastuen frogagiriak aurkeztu ondoren ordainduko dira.

## 15. DEIALDIKO BALDINTZAK

### 15.1. Jabetza intelektual



- Parte-hartzaileak deialdi hau dela-eta lantzen dituzten proiektuen jatortasunaren eta egiletzaren erantzuleak dira eta, alde horretatik, deialdi hau antolatzen duten zentroek horiek erabil ditzaketela bermatzen dute, eta zentrook espresuki salbuetsita geratzen dira zuzenean edo zeharka berme hori ez betetzeak eragin ditzakeen kalte edo/eta galeretatik.
- Egileek bertako askotariko elementu batzuen edo guztien gaineko ustiapen- eta irudi-eskubideak lagatzen dizkiete dohainik, baina ez eskusiban, deialdi hau antolatzen duten zentroei 2021eko urtarrilaren 31 arte, PATRIM+ proiektuaren amaitzen den unea eta mundu osoarentzat. Egileak elementu horiek Creative Commons Ez Komertziala 3.0 Espainia lizentziaz babestea erabaki dezake. Lagatze hori egileari itzuliko zaio aldia bukatutakoan.
- Hautaturiko artistak espresuki baimentzen die deialdi hau antolatzen duten zentroei egoki ikusten duten bezala bere izena baliatzeko aukera, deialdi honen helburuetan kokatuta, betiere.

### 15.2. Hautaturiko artisten irudi-eskubideak

Parte-hartzaileek baimendu egiten dute proiektu honetan kokatuta hartutako irudiak (argazkiak bideoa, etab.) erabiltzea informazio edo sustapenerako gero horiek zabaldu ahal izateko.

### 15.3. Datu-babeserako legea

Datu Pertsonalen Babeserako Araudia betez, zehazki 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, jakinarazten da hornitutako datuak deialdia antolatzen duten zentroen datu-base informatizatu batean biltegitratuko direla, eta bakarrik erabiliko direla museoaren programa eta jarduerari buruzko informazioa bidaltzeko. Inondik ere ez zaizkie datu horiek hirugarrenei helaraziko. Hala ere, uneoro edukiko dira informazio-, sarbide-, zuzenketa-, ezeztatze- eta ukapen-eskubideak; horretarako, idazki bat aurkeztu behar da deialdi hau antolatzen duten zentroen egoitza fisikoan edo helbide elektronikoa: [residencias@patrim.net](mailto:residencias@patrim.net)

#### ESPACIO PIRINEOS

**Centro de Creación y Cultura del Pirineo**  
Plaza de la Compañía, 22430 Graus (Huesca)  
(+34) 974 54 00 01  
Zuzendaritza eta programazioa: Jorge Mur,  
[dire@espaciopirineos.com](mailto:dire@espaciopirineos.com)  
<http://espaciopirineos.com/>

Ezkio bidea z/g 20709 EZKIO-ITSASO.  
(Gipuzkoa)  
+34 943 722 978  
[www.igartubeitibaserrria.eus](http://www.igartubeitibaserrria.eus)  
Mariana Rotaeché  
Portuetxe kalea 83, 2.a- 18 bulegoa  
PK: 20018 Donostia - San Sebastián (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 29 11 05  
[mrotaeche@k6gestioncultural.com](mailto:mrotaeche@k6gestioncultural.com)

**CASERÍO MUSEO IGARTUBEITI BASERRI  
MUSEOA**

**CHÂTEAU DE SEIX - COUSERANS**  
**Communauté de Communes Couserans -**  
**Pyrénées**  
Hôtel-Dieu, 09190 Saint-Lizier, France  
+33 5 61 01 95 34  
[pauline.chaboussou@couserans-pyrenees.fr](mailto:pauline.chaboussou@couserans-pyrenees.fr)  
[www.patrimoine-du-couserans.com](http://www.patrimoine-du-couserans.com)

[www.couserans-pyrenees.fr](http://www.couserans-pyrenees.fr)

**Le Bus - espace culturel mobile**

Association Autres directions

+33 6 69 27 36 80

[lebus.espaceculturelmobile@gmail.com](mailto:lebus.espaceculturelmobile@gmail.com)

[www.lebus-espaceculturel.com](http://www.lebus-espaceculturel.com)

[www.facebook.com/lebus.autresdirections](https://www.facebook.com/lebus.autresdirections)